

Zer dago Europar Batasunetik at?

MEMORIA eta Bizikidetza kongresuak ez du berrikuntza handirik utzi orain arte esparru horietan esandakoez. Zakar esanda, Estatuaren bandoak bere orain arteko tesiak berretsi ditu honako ardatzaren inguruan: zilegi ez zen biolentzia bakarra izan da, ETAre-na, eta memoria ere horren gainean eraiki behar da. Ofizialki onartzen dira beste zirrikitu

batzuk, GALena bezalako esaterako, baina ez memoria eraikitzeko.

Kongresuan, alabaina, izan dira bestelako zirrikituak ere. Carmen Gisasolak hitz egitea nahi zuen PSEk eta, seguruenik, hori aurrerapena zatekeen gisa horretako ekitaldietarako, bizikidetzari dagokionez, Langraitzeko presoen taldean biltzar honetan defendatuz diren baina bestelako posizioak defenditzen direlako. Baina PP gailendu eta Gisasola ez zen bilkuran izan.

Biltzarren tesiak albo batera utzita, ongi da gatazkan izan diren sentsibilitateek hausnarketa egin dezaten sufrimenduaz, biktimez, elkarbizitzaz, memoriaz... norberenetik bakarrik has daitekeelako geroan hausnarketa partekatua izango dena. Ezinbesteko berotze ariketak dira, bando bakoitzak apurka barnera dezan zer irentsi beharko duen, zertan amore eman, zertan ez... ateratzekotan horietatik aterako delako etorkizuneko bizikidetza. Memoria bakarrarekin ez, baina memoria pasarte partekatuekin bai; egi osoarekin ez, baina egi zati partekatuekin bai; justizia osoarekin ez, baina bakoitzaren minen estalgarri beharko lukeen justiziarekin bai. Erabat ase ez, baina bizikidetza berriari ekiteko adinako osagai partekatuekin bai.



Halako zerbaiz izango da gatazka honetan murgildutakoen arteko hausnarketa bateratuak utziko duen humusa, eta horren gainean sortuko da bizikidetza berria, etengabe ureztatu beharko dena, berriz iraganeko akatsetan eror ez dadin. Ureztatze horrek iragana bakarrik ez, etorkizuna ere behar du. Eta edonork daki hori guztia ezin dela eraiki oraindik ere Estatuaren praktikak diren ilegalizazioa, jazarpen judiziala, sakabanaketa eta gisakoekin. Eta, seguruenik, ezta ere desagertu gabeko ETA batekin. Oraindik, hala ere, Moncloan bi klabe nagusi bide dira: bata mendekuarena, horrek eskuinaren kohesioa ematen diolako; bestea, etekin politikoarena, alde horretatik presoen munduan du aukera handiena epe laburrean eta hori baliatzen saiatuko da.

Eusko Legebiltzarretik sortu nahi den Memoria, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Institutua ere beste urrats bat da etorkizun partekatu horren eraikuntzan. Oraindik ez da seguru legealdi honetako lege proiektu batetik sortuko den, baina hala izan edo ez, garrantzitsuena hurrengo legealdian etorriko da, ezker abertzalea ere zutuin horien eraikuntzan izango denean.

EUROA ala Europar Batasuna, zer izan zen lehen? Ez da txistea, irakurle, atzera hamar urte egin eta gure memoriak aise kokatzen du zein izan zen lehen; baina egungo hedabide gehienen eta agintarien oihartzunak entzunda, martiztarren batek argi pentsatuko luke euroa lehen eta garrantzitsuena dela. Garaiotan euroa aise gailendu zaio EBri. EBZk agintzen die estatuei eta

ez alderantziz, euroa hondoratzen bada EB osoa ondoratuko ei da. Eta agian bai, baina ez du zergatik, edo ez luke behar, ez behintzat diruak aipatutako agintarien orde, herritarrek hautatutakoek boterea berreskuratuko balute.

Aste honetan etorri dira Espainiara EBZk izendatutako finantza ikuskariak, Espainiako Bankuaren sinesgarritasuna erabat birrinduz. Espainiako bankuen porrotari prezioa jarriko diote, eta sendatze lanen hasiera agindu. Kontua da zenbat diru jarri beharko duen Espainiako Gobernuak eta horretarako zenbat murriztu beharko duen aurrekontuetatik. Eta miseriarik handiena da erreskate hori bankuek haiek utzitako diruarekin egin beharko duela, izan banku pribatuetako zorra, izan EBZren dirua. Modu geldiezinean, diruaren zurrumbiloan gero eta makurrago doa Espainia. Ea noraino eramaten gaituen. Hori da patua, baldin eta EB euroari gailentzen ez bazaio. Bestela, mereziko ez duen EB izango da, Greziak lehenik eta ondoren beste batzuek ere utziko dutena. Zurrumbiloan eta pobrezian murgildu ahala, Alemaniaren finantza feudalismoa edo Europar Batasunetik kanpoko arriskuen artean hautatu beharko dute herritarrek.

